

XEDAPEN OROKORRAK

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

939

AGINDUA, 2018ko otsailaren 6koa, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, Ogasun eta Ekonomia Sailaren eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoen datu pertsonalen fitxategiei buruzkoa.

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren xedea da askatasun publikoak eta pertsona fisikoen eskubideak bermatzea eta babestea, halako datuen tratamenduari dagokionez. Lege hori aplikatuko zaie euskarri fisikoan erregistratutako datu pertsonalei, baldin eta euskarri horrek ahalbidetzen badu datu horiek tratatzea, bai eta datu horiek gerora sektore publikoan edo pribatuan izango duten edozein erabilerari ere.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeko 4. artikulua xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren fitxategiak sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeko agindua eman behar du dena delako fitxategia atxikita dagoen saileko titularrak. Indarrean dauden legeek eskatutako aipamen guztiak jaso beharko ditu agindu horrek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, hala ezarrita baitago 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 artikuluan eta lege hori garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 54. artikuluan.

Horrez gainera, Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuak 2. artikuluan ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi beharko diotela datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatu izana, gorabehera horiek Datuak Babesteko Erregistroan inskriba daitezten.

Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2014ko otsailaren 28ko Aginduaren bidez, Ogasun eta Finantza Sailaren eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoen datu pertsonalen fitxategiak arautzen dira. Agindu horrek helburu izan zuen xedapen bakar batean arautzea sail horren mendeko datu pertsonalen fitxategiak, haren erakunde autonomoenak barne hartuta. Horrela eginda, Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretutik eratorritako egitura-aldaketara egokitu zen arauketa (20/2012 Dekretua, abenduaren 15ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Ondoren, 2015eko martxoaren 20ko Agindua argitaratu zen, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, datu pertsonalen fitxategiak sortu eta ezabatzen dituen eta Ogasun eta Finantza sailaren eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoen datu pertsonalen fitxategiei buruzko 2014ko otsailaren 28ko Aginduaren I. eranskina aldatzen duena. Bestalde, Borondatze Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetako Bazkideen Fitxategi Orokorren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2016ko uztailaren 19ko Aginduak aldaketa jakin batzuk sartu zituen 2015eko martxoaren 20ko Aginduak horretarako sortutako fitxategian.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren bidez sortu zen egungo Ogasun eta Ekonomia Saila. Dekretu horren Bosgarren Xedapen Gehigarriaren arabera, Ogasun eta Ekonomia Saila iraungitako Ogasun eta Finantza Saileko organo eta unitateek osatuko dute, Administrazioako eta Zerbitzu Orokorretako

Sailburuordetzako organo eta unitateen salbuespenarekin, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza izan ezik. Hori dela eta, Baliabide Orokorren Zuzendaritza eta Informatika eta Telekomunikazioetako Zuzendaritza ez daude egun Ogasun eta Ekonomia Sailaren egituran.

Sailaren antolamendu-egituran izan diren aldaketa horiei jarraituz, sailaren datu pertsonalen fitxategi automatizatuen esparru arautzaile berri bat ezarri behar da, sail horren mendeko datu pertsonalen fitxategiak, haren erakunde autonomoenak barne hartuta, xedapen bakar batean bilduko dituen; hori guztia egitea komeni da argitasun eta segurtasun juridikoa lortzen laguntzeko, arauen sakabanatzea saihesteko eta arauketa egokitzeko 24/2016 Dekretuak eta Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuak ezarritako egitura-aldaketara.

Aldi berean, premia sortu da zenbait fitxategi sortzeko eta ezabatzeko, bai eta lehendik zeuden beste zenbait aldatzeko ere, betiere Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan ezarritako eskakizunak hobeto bete eta haietara egokitzeko. Lege organiko horren garapen-erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 54.1 artikulua bidez garatu zen artikulua hori.

Hori guztia dela eta, 2/2004 Legearen 4. artikulua babesean, eta 168/2017 Dekretuaren 3.1 artikuluan ezarritako eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Ogasun eta Ekonomia Sailak eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoek kudeatutako datu pertsonalen fitxategiak arautzea.

2. artikulua.– Fitxategiak sortzea.

I. eranskineko zerrendan jaso diren datu pertsonalen fitxategiak sortzen dira, bertan zehaztutako edukia dutela.

3. artikulua.– Fitxategiak ezabatzea.

II. eranskineko zerrendan jaso diren datu pertsonalen fitxategiak ezabatzen dira, eta fitxategi horietan jasotako datuei emango zaien destinoa ezartzen da.

4. artikulua.– Fitxategiak aldatzea.

Datu pertsonalen fitxategiak aldatzen dira III. eranskinean zehaztutako alderdiei dagokienean.

5. artikulua.– Fitxategien zerrenda.

IV. eranskinean jaso dira Ogasun eta Ekonomia Sailak eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoek kudeatutako datu pertsonalak dituzten fitxategiak, sailaren egitura berrira egokituta eta horietako bakoitzari dagokionean Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan ezarritako edukia zehaztuta. Lege organiko horren garapen-erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 54.1 artikulua bidez garatu zen artikulua hori.

6.– Datuak lagatzea.

1.– Fitxategi bakoitzari dagokionez aurreikusten diren datu-lagatzeei kalterik egin gabe, fitxategietako datuak laga ahalko dira administrazioaren esparruan, ordenamendu juridikoak agindutako egitekoak betetzeko, eskumen berberak edo gai bertsuen gainekoak baliatzeko.

2.– Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren estatistika-organo eta -zerbitzuei laga ahal zaizkie datuok, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak eta Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legeak ezarritakoari jarraituz.

3.– Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 artikulua arabera, datuok laga ahal zaizkie Arartekoari, Fiskaltzari, Epaile eta Auzitegiei eta Kontuen Epaitegiari, esleituta dituzten egitekoak betetzeko.

7. artikulua.– Segurtasun- eta kudeaketa-neurriak.

Fitxategi bakoitzaren organo arduradunetako pertsona titularrek beharrezko neurriak hartuko dituzte fitxategiak sortu ziren helburuetarako erabiliko direla eta datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko –horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo datu horietara baimenik gabe sartzea saihestuz– eta 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko arauetan aitortutako bermeak, betebeharrak eta eskubideak egikaritzeko.

8. artikulua.– Datuak tratatzeko zerbitzuak ematea.

Ogasun eta Ekonomia Sailaren zein Euskal Estatistika Erakundea edo Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoen kontura datu pertsonalak tratatzeko zerbitzuak ematen dituztenek datu-tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bete behar dituzte agindutako egitekoak, eta xede horretarako egingo den kontratuan jaso beharko da betebeharrak. 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikuluari jarraituz, datuok ezingo dira aplikatu edo erabili kontratu horretan jaso gabeko xedeekin ez eta komunikatu –ezta datuok gordetzeko ere– beste pertsona batzuei.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ogasun eta Ekonomia Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzak agindu honen kopia bat helaraziko dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, kasu bakoitzean dagokionaren arabera aginduan jasotako fitxategiak inskriba, ezaba edo alda ditzan, horretarako ezarritako prozedurari jarraituz.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean jartzen denean, indargabetuta geratzen dira bertan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko zein beheragoko xedapenak, bereziki honako hauek: Ogasun eta Finantzaketako sailburuaren 2014ko otsailaren 28ko Agindua, Ogasun eta Finantza Sailaren eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoen datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituenak; Ogasun eta Finantzaketako sailburuaren 2015eko martxoaren 20ko Agindua, datu pertsonalen fitxategiak sortu eta ezabatzen dituenak eta Ogasun eta Finantza Sailaren eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoen datu pertsonalen fitxategiei buruzko 2014ko otsailaren 28ko aginduaren I. eranskina aldatzen duena.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 6a.

Ogasun eta Ekonomiako sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

I. ERANSKINA, Ogasun eta Ekonomia Sailaren eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoen datu pertsonalen fitxategiei buruzko Ogasun eta Ekonomia sailburuaren Aginduarena

Hona hemen agindu honen bidez sortutako datu pertsonalen fitxategiak:

– Ordainketa zatikatzea borondatez ordaintzeko epean

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Euskadiko Ogasun Nagusiarekiko zordunen zuzenbide publikoko zorrak zatikatzea edo atzeratzea borondatez ordaintzeko epean.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

EAEko Administrazioarekin duten zorra modu zatikatuan ordaintzea eskatzen duten pertsona fisikoak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Interesdunak, inprimaki normalizatu bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN/IFZ, helbidea, telefonoa, izenpea, posta elektronikoa/faxa, erregistro-zenbaki pertsonala.

Datu ekonomiko finantzarioak eta aseguruiei buruzkoak (EF).

Arau-hausteei buruzko datuak (AH).

e) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren arduraduna:

Finantza Politikarako Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila

Finantza Politikarako Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Maila ertaina.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

– OARC/KEAOak kontratu publikoen alorrean berrikusi beharreko espedienteak

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Errekurtso bereziaren prozesuan interesa duten operadore ekonomikoekin komunikatzea eta botere adjudikatzailleek bidalitako kontratazio-espedienteetan dauden datuak aztertzea, dagokion ebazpena emateko.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Operadore ekonomikoek eta botere adjudikatzailleek enplegatutako pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Pertsona interesdunak eta botere adjudikatzailleek bildutako datuak bidaltzea, dokumentuak erantsiz eta datuak elektronikoki bidaliz.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: operadore ekonomikoaren legezko ordezkariaren izen-abizenak, NANA, telefonoa, posta elektronikoa eta izenpea; botere adjudikatzaillearen enpleguaren NANA, izen-abizenak, telefonoa eta posta elektronikoa; errekurtsoak edo alegazioak aurkeztu dituzten pertsonen NANA, izen-abizenak, posta-helbidea, telefonoa, posta elektronikoa eta izenpea.

Enpleguari buruzko xehetasunak (EX).

Datu akademiko eta profesionalak.

e) Datuak lagatzea:

botere adjudikatzailleei eta operadore ekonomiko interesdunei (NANA eta operadore ekonomikoaren legezko ordezkariaren izena soilik).

f) Fitxategiaren arduraduna:

Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren titularra.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila

Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarritzko maila.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

II. ERANSKINA, Ogasun eta Ekonomia Sailaren eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoen datu pertsonalen fitxategiei buruzko Ogasun eta Ekonomia sailburuaren Aginduarena

Hona hemen agindu honen bidez ezabatutako datu pertsonalen fitxategiak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxen eta Banku Fundazioen Erregistroa

Fitxategi horretako datuak ezereztu egingo dira.

– Aseguru Bitartekaritzan diploma duten pertsonen Fitxategia

Fitxategi horretako datuak ezereztu egingo dira.

– FEDER Funtsak

Fitxategi horretako datuak ezereztu egingo dira.

– Sozietate Publikoen Inbentarioa

Fitxategi horretako datuak ezereztu egin dira.

– Europako Funtsak

Fitxategi horretako datuak ezereztu egin dira.

III. ERANSKINA, Ogasun eta Ekonomia Sailaren eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritzaren erakunde autonomoen datu pertsonalen fitxategiei buruzko Ogasun eta Ekonomia sailburuaren Aginduarena

Honako alderdi hauei dagokienez agindu honen bidez aldatutako datu pertsonalen fitxategiak

– BGAE Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundearen bazkideak biltzen dituen fitxategi orokorra.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

BGAE bateko bazkide diren pertsona fisikoak, zehazki aurreikuspen-plan bati lotutakoak eta horien onuradunak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: bazkideen altak eta bajak eta prestazioen onuradunak –borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek bidaliak– eta heriotzak eragindako bajak –erakunde horiek beraiek bidaliak edo datu horiek legez lagako zaizkien erregistro eta fitxategietatik atereak.

Informazio-eskatzaileen kasuan, interesduna bera edo haren legezko ordezkaria.

Bilketa-prozedura: inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: bazkidearen NANA, prestazioen onuradunaren NANA, informazioa eskatzen duen pertsonaren NANA eta ziurtagiri digitala.

Datu ekonomiko finantzarioak.

– Kontratazio-espeditentak

a) Fitxategiaren helburua:

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari (Kontratazio Batzorde Nagusia) esleitutako kontratuen inguruko gorabeherak eta kontratazio-espeditentak kudeatzea.

Administrazioen eta enpresen erabiltzaileentzako prestakuntza.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Lizitatuak eta haien ordezkariak edo ahaldunak; kontratazio-mahaiko kideak eta zerbitzu-kontratuetan subrogatu beharreko langileak.

Botere adjudikatuak aplikazioen erabiltzaileak.

Administrazioetako eta enpresetako langileak, prestakuntza jasotzen dutenak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: interesduna edo haren legezko ordezkaria, beste administrazio batzuk, epaitegiak, enpresak eta subrogatu beharreko kolektiboen kasuan dagozkien administrazioak.

Datuak biltzeko prozedura: transmisio elektronikoa; beste batzuk: aurkeztutako agiriak.

IV. ERANSKINA, Ogasun eta Ekonomia Sailaren eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoen datu pertsonalen fitxategiei buruzko Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren Aginduarena. Fitxategien zerrenda

Ogasun eta Ekonomia Sailaren eta Euskal Estatistika Erakundea eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoen datu pertsonalak tratatzen dituzten fitxategien egungo zerrenda,

A) OGASUN ETA EKONOMIA SAILAREN DATU PERTSONALEN FITXATEGIAK

1.– EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

1.1.– Ekonomiako argitalpenen banaketa

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Ekonomiako argitalpenak pertsona harpidedunei eta erakunde interesatuei banatzearen kudeaketa eta kontrola.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Informazio ekonomikoa eta argitalpenak jasotzen dituzten pertsonak, eta argitalpen horietako langile kolaboratzaileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesdunak, sarrera publikoko iturriak (zerrenda profesionalak).

Bilketa-prozedura: inprimakiak edo kupoiak, Internet.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta faxa.

Enpleguari buruzko xehetasunak.

Merkataritza-datuak.

Transakzioei buruzko datuak.

e) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitezkeen:

Oinarritzkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

1.2 – Ekonomiako argitalpenen kolaboratzaileak

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Ekonomiako argitalpenen pertsona kolaboratzaileen erregistroa eta ordainketen kudeaketa.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Argitalpenen pertsona kolaboratzaileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesdunak.

Bilketa-prozedura: inprimakiak, Internet.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: NANA, izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta faxa, e-maila.

Datu akademiko eta pertsonalak.

Enpleguari buruzko xehetasunak.

Datu ekonomiko finantzarioak.

e) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarritzkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

1.3 – Ekonomia arloko ekimenen dibulgazioa

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Euskal Autonomia Erkidegoaren jarduera ekonomikoarekin lotutako ekintzak eta proiektuak zabaltea xede duten ekimenen kudeaketa, bai eta gai horietan herritarren partaidetza sustatzea ere.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Herritarrak, oro har.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesdunak.

Bilketa-prozedura: datuen transmisio elektronikoa, Internet.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, helbidea, NANA, ezizena, posta elektronikoa, material grafikoa.

e) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarritzkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Automatizatua.

1.4.– EAEko ekonomiari buruzko ikerketa-lanen ezagutza-mapa

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

EAEko ekonomiaren alorrean egindako lanak eta alor horretan aritzen diren ikertzaileak erregistratzea eta kudeatzea.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

EAEko ekonomia-ikertzaileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: Internet, ikerketa-erakundeak eta -sailak.

Bilketa-prozedura: paperezko euskarria, bide telematikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, telefonoa, posta elektronikoa.
Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak.
Enpleguari buruzko xehetasunak.

e) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza
Donostia kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarritzkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

2.– AURREKONTU ZUZENDARITZA

2.1.– Aurrekontuaren I. kapitulua

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

I. kapituluko aurrekontua –langile-gastuei buruzkoa– prestatu eta lantzea.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari atxikitako langileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: administrazio publikoak.

Bilketa-prozedura: datuen transmisio elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN.

Enpleguari buruzko xehetasunak.

Datu ekonomiko finantzarioak eta aseguruiei buruzkoak.

e) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Aurrekontu Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila

Aurrekontu Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Automatizatua.

3.– KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOA

3.1.– Endosatzeak

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Kredituen lagapena erraztea.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Zehaztutako dokumentuak aurkezten dituztenak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesdunak.

Bilketa-prozedura: aurkeztutako dokumentuak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, IFZ, helbidea, izenpea, irudia.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak.

Enpleguari buruzko xehetasunak.

e) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila
Kontrol Ekonomikoko Bulegoa
Donostia kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

3.2.– Informazio-sistema eta ekonomia- eta kontabilitate-kudeaketa

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Honako hauen kontabilitate-erregistroa egitea: aitortutako eskubideak, finantza-aktiboak, sarre-
rak, gastu-konpromisoak, ordainketa-betebeharrak eta hirugarrenei egindako ordainketak, baita
ordainketak egitea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerga-betebeharrak
betetzea.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zordunak edo hartzekodunak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesdunak.

Bilketa-prozedura: inprimakiak, aplikazio informatikoa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, IFZ, helbidea, izenpea eta telefonoa.

Datu ekonomiko finantzarioak eta aseguru- buruzkoak.

Transakzioei buruzko datuak.

Arau-hausteei buruzko datuak.

e) Datuak lagatzea:

Foru-ogasunei eta Zerga Administrazioari.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila
Kontrol Ekonomikoko Bulegoa
Donostia kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Ertaina.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

3.3.– Osakidetzako nominen kontu-hartzailletza

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak enplegatutako pertsonen izendapenei eta ordainsariei buruzko kontu-hartzea, kontrola eta legezketasun-txostenak egitea.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko enplegatuak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: beste administrazio publiko batzuk.

Bilketa-prozedura: datuen transmisio elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN, erregistro-zenbaki pertsonala.

Datu akademiko eta profesionalak.

Enpleguari buruzko xehetasunak.

Datu ekonomiko finantzarioak.

e) Datuak lagatzea:

Osakidetza.

Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

Eusko Legebiltzarra.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarritzkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

3.4.– Osakidetzako adjudikaziodunen kontu-hartzailletza

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Osakidetzako lizitazio- eta kontratazio-espeditenteen kontu-hartzea eta legezkotasun-kontrola.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Osakidetzako kontratazio-espeditentearen parte diren pertsona fisikoak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: beste administrazio publiko batzuk.

Bilketa-prozedura: datuen transmisio elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN, posta-helbidea, helbide elektronikoa, izenpea.

Ezaugarri pertsonalak.

Informazio komertziala.

Transakzioak.

e) Datuak lagatzea:

Osakidetzak, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Eusko Legebiltzarra.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarritzkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

4.– ZERGA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA

4.1.– Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren argitalpenen banaketa

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren argitalpenak banatzea: ZERGAK aldizkaria, Euskal Ogasunaren urteko txosten bateratua, eta beste argitalpen puntual batzuk.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

ZERGAK aldizkariaren pertsona harpidedunak eta kolaboratzaileak, eta Euskal Ogasunaren urteko txosten bateratua hartzen dutenak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesdunak, administrazio publikoak, sarrera publikoko iturriak (komunikabideak).

Bilketa-prozedura: inprimakiak, Internet.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea, telefonoa eta faxa.

Enpleguari buruzko xehetasunak.

Datu ekonomiko finantzarioak eta aseguruiei buruzkoak.

e) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Zerga Administrazioako Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila

Zerga Administrazioako Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarritzkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

4.2.– Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegiaren eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen dokumentazioa kudeatzea

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Honako hauei buruzko dokumentazioa erregistratzea eta kudeatzea: prozedura ekonomiko administratiboa, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen prozedura, dokumentuen sarrerak eta irteerak kontrolatzea.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegiaren, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen, eta oro har espedienteak eta agiriak bidaltzen dituzten organo administratiboak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesdunak, administrazio publikoak (foru-aldundiak eta Zerga Administrazio-
zioko Estatu Agentzia).

Bilketa-prozedura: erreklamazio-inprimakiak, pertsona interesdunak aurkeztutako agiriak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea, telefonoa eta faxa.

Datu ekonomiko finantzarioak eta aseguru-
buruzkoak.

Arau-hausteei buruzko datuak.

e) Datuak lagatzea:

Zerga Administrazio-
zioko Estatu Agentzia.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Zerga Administrazio-
zioko Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen
aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila

Zerga Administrazio-
zioko Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Ertaina.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

5.– FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARITZA

5.1.– Aseguru-artekarien erregistroa

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Aseguru-etxe pribatuetan merkataritza-jarduera burutzen duten aseguru-artekariak, berrase-
guru-artekariak eta horien goi-kargudunak inskribatzea.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Inskripzio administratiboa eskatzen duten pertsonak, euren jarduketa-eremua Euskal Autono-
mia Erkidegora mugatua dutenak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesdunak.

Bilketa-prozedura: inprimakiak, agiriak aurkeztea.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, NAN, posta elektronikoa, faxa, izen-pea, erregistro-zenbaki pertsonala (inskripzio autonomikoaren gakoa).

Inguruabar sozialei buruzko datuak.

Datu akademiko eta profesionalak.

Enpleguari buruzko xehetasunak.

Datu ekonomiko finantzarioak eta aseguruari buruzkoak.

e) Datuak lagatzea:

Aseguru-bitartekaritako elkargoei.

Aseguruen alorrean eskumena duen ministerioa.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Finantza Politikarako Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila

Finantza Politikarako Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

5.2.– Ordainketa zatikatzea borondatez ordaintzeko epean

(ikus I. eranskina).

5.3.– Premiamendu-bideko errekursoak

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Trafiko-zehapenak direla-eta premiamendu-bidean aurkezten diren errekursoak erregistratu eta izapidetzea.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Premiamendu-prozeduretako errekurso-egileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesdunak, administrazio publikoak (Trafiko).

Bilketa-prozedura: errekursoak jartzeko idazkiak eta zehapen-espeditentak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, helbidea, erregistro-zenbaki pertsonala.

e) Datuak lagatzea:

Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Finantza Politikarako Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila
Finantza Politikarako Zuzendaritza
Donostia kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

5.4.– Abalak, gordailuak eta fidantzak

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Jarritako abalak eta fidantzak erregistratu eta kudeatzea.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan abalak edo fidantzak jartzen dituzten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesdunak.

Bilketa-prozedura: inkestak edo elkarrizketak, abalak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura.

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN7IFZ.

Datu ekonomiko finantzarioak eta aseguruiei buruzkoak.

e) Datuak lagatzea:

Epaitegiei eta auzitegiei.

Toki-administrazioari (aldundiak eta udalak).

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Finantza Politikarako Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila
Finantza Politikarako Zuzendaritza
Donostia kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

5.5.– BGAE Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroa

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

BGAEen ordezkarien eta arduradunen izenen zerrenda.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

BGAEen ordezkariak edo kudeaketa-arduradunak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: pertsona interesdunak.

Bilketa-prozedura: inprimakiak.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN/IFZ, helbidea, telefonoa.

Enpleguari buruzko xehetasunak.

e) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik hauteman.

f) Fitxategiaren organo arduraduna:

Finantza Politikarako Zuzendaritza.

g) Zein zerbitzutan erabil daitezkeen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak:

Ogasun eta Ekonomia Saila
Finantza Politikarako Zuzendaritza
Donostia kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz

h) Zer segurtasun-maila eska daitekeen:

Oinarrizkoa.

i) Tratamendu-sistema:

Partzialki automatizatua.

5.6.– Premiamendu-bidea

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Premiamendu bidetik egindako kobrantzak kudeatzea.

b) Datuen jatorri diren pertsonak edo kolektiboak:

Premiamendu-bidera iristen diren pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Jatorria: herri-administrazioak.

Bilketa-prozedura: beste batzuk: aplikazio informatikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN/IFZ, helbidea, telefonoa.

Datu ekonomiko finantzarioak eta aseguruiei buruzkoak.

Arau-hausteei buruzko datuak.

e) Datuak lagatzea:

